

Erref.: FMR/Legelari aholkularia

**DAVID LATXAGA UGARTEMENDIAK, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIAK**

**HAU ZIURTATZEN DU:**

2024ko abenduaren 18ko bilera arruntean (4/24 akta), Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzak, besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

**12. gaia.**- 2021, 2022, 2023 eta 2024ko lan-eskaintza publikoei dagozkien hautaketa-proben deialdia onartzea, Gizarteratzeko goi-mailako teknikariaren kategoriarako.

«**Lehenengoa.**- Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Enplegu Publikoaren Eskaintzekin bat etorritik (eskaintza horiek Gobernu Batzordearen 2021eko abenduaren 23ko, 2022ko abenduaren 19ko, 2023ko abenduaren 20ko eta 2024ko abenduaren 18ko erabakien bidez onartu ziren), dagozkien eranskinetan zerrendatzen diren gizarteratzeko goi-mailako teknikari plazak betetzeko hautaketa-probetarako deialdia xedatzea.

**Bigarrena.**- Aipatutako deialdia arautuko duten oinarri orokorrak eta espezifikoak onartzea; erabaki honen eranskin gisa gehitu dira, jasota gera daitezen.

**Hirugarrena.**- Oinarriak osorik argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean –laburpen gisa–, GUFEn iragarki-taulan eta webgunean.

**Laugarrena.**- GUFeko gerentea gaitzea, deialdi hau izapidetzeko behar diren ebazpen guztiak eman ditzan».

Eta hala jasota gera dadin, erabakitakoa betetzeko, eta bileraren akta onartzeak aldaketak eragin ditzakeela kontuan hartuta, ziurtagiri hau egin dut.

Sin./Fdo.: DAVID LATXAGA UGARTEMENDIA 2024-12-27  
GUFÉ-REN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIA  
SECRETARIO DE LA JUNTA DE GOBIERNO DEL IFAS

